

DUELA 46 URTEKO KONTUEKIN BUELTAN... (ZIKUÑAGAKO ERMITA)

**Jose Luis Aperribai Madinabeitia
(bikariokidea)**

Hala da, bai. Industrializazioa indartzen eta hedatzen ari zen garai haietan. Eta gure Hernani honetan ere bai. Urumea ibaian gora. Antzina burdinolak kokatu ziren ibaiertzean. Hirurogeitahamarreko hamarkadan, burdingintzarekin batera, papergintza suspertuz joan zen gure artean.

Hain zuzen, 1974an gertatu zen Zikuñagako ermitaren auzian zerikusi handia izango zuen akordio komertziala: ermitaren lur-zoruaren salerosketa Donostiako Gotzaindegiaren eta Papelera Guipuzcoana de Zikuñagaren artean. Handik urte batera Andolako kokagunean berreraikitze konpromisoarekin. Liskar zibil eta judizialek, alde batetik, eta 5 urte geroago (1979) Zikuñagako Andre Mariaren irudia lapurtua eta desagerrarazi izateak, are gehiago su piztu zituen orduko gizarte eragileen arteko sumindura eta etsipena.

Eta, horrela, urteak joan urteak etorri, aldian aldiko salaketak eta erreibindikapenak eginagatik, hauts artean eta isilpean geratzen joan da Zikuñagako Andre Mariaren irudia. XII-XIII. mendekoa omen zena, eta 1948. urtera trukatur. Andre Mariarenganako kultuaren aipurik zaharrena 1529.g. idatzi batean jasoa dator. Kontua da, "Agur Jesusen Ama" kantatuz agurtu zutela ermitan Andre Maria azken aldiz 1985an. Eta handik 2 urtera eraitsi zuten ermitaren eraikuntza.

Zergatik orain bai?

20 urte daramatzat herri honetan herritar eta apaiz gisa. San Joan Bataiatzailea parrokia elizako ate nagusitik sartuta, korurako bidea hartzen baduzu, hor ikusiko zenuen bataioko pontearen gain, Zikuñagako Andre Mariaren erreplika bat, ermitako seroraren esanetan eta argazkietan oinarri hartuz egindakoa.

Jada 1954. urtetik, San Joan Bataiatzailearekin batean, Hernaniko zaindari izendatua izan zenez gero, bazegokiola lehen mailako kokaleku bat egokitzea gure parrokian, eta eguneroko mezataria biltzeko kaperatxo bat eraikitze ari ginelarik, iritzi genion

egoki zela Zikuñagako Ama kapera izendatzea, 400 urte aurretik bukatu gabe geratu zena burutuz eta korupeko imajina bertara aldatuz.

Kapera berria estreinatu eta berehala, hor non datozkidan, desagerrarazitako irudia eta ermita berreraikitze talde bultzagilea esanez: "Ongi da kapera berria egin izana, baina horrek ez du beste erronka baztertzen, baizik eta susper dezake ermitaren berreraikuntza".

Jakinarazi zitzaigun, gainera, ermita berreraikitze diru-fondo bat zegoela, horretara eta ez beste ezertara destinatua.

Miatu genuen ermita eraikitze orubea non eta nolako baldintzatan zegoen. Eta, ondorioztatu zen, Andola inguruko lur-zoruetan ez zegoela inondik ere proiektua burutzerik, malda malkartsu hartan irisgarritasuna lortzeko gastuek bakarrik xahutuko zutelako esku artean genuen dirua.

Horrela, Orkolaga baserri inguruko harizti eta larreei egokiago iritzi genien ermita altxatzeko, Hernaniko herriaren begi-bistan geratuko zelako eta, batik bat, Zikuñagako auzotik gertu aurkitzen zelako.

Gainera, hasiera-hasieratik garbi genuen, Zikuñagako Andre Mariaren oroimena eta benerazioa auzotarren eta herritarren tradizio eta jai-giroarekin loturik jarraitu behar zuela. Horregatik, ermitaren inguruko parkeari erabilpen sozial eta ludikoa ematea bidezkoa iruditu zitzaigun. Are gehiago, Zikuñagako auzategiak gaur egun dituen muga eta herstura urbanistikoak kontutan hartuta.

Azken lau urte hauetako harremanak eta gestioak (2017-2021)

Berrogeita sei (46) urte pasa badira auzi honen jatorri hartatik. Eta ermita berreraikitze proiektua martxan jartzeko ere 4 urte pasa dira. Landa-gune batean berreraikitze, aparteko baimen bereziaren beharrean gertatu izan gara. Eta horrela, lehenbizi Gipuzkoako Foru Aldundiak interes publikoko on-

ZIKUÑAGAKO AMA ERMITA

ZIKUÑAGAKO BASELIZAREN BERRERAIKITZEA

mugarri historikoak

1529 Zikuñagako Ama Birjinaren gurtzaren lehen aipamen idatziak.
XII-XIII mendeko irudi gotiko zuria.

1935 Bere inguruan Papelera Gipuzcoana de Zikuñaga SA enpresa kokatzen da.
XX mendeko industria-garapena: Industria asko Urumea ibaiaren ertzak hartzen dituzte.

1949 Ermita zaharberritu eta XVII. mendeko erretaula kentzen da.
Ama Birjinaren irudia, gotiko zuria, zaharberritzera bidaltzen da.
Bueltakoan, estiloz eta kolorez erabat aldatua itzultzen da.

1974 Paper-fabrikak Ermita kokatuta dagoen lursaila erosten dio Gotzaindegari.
Eztabaida eta polemika handia sortzen da herrian.
Baseliza beste leku batera eramatea adosten da.

1979 Ama Birjinaren irudia lapurtua da (Ostegun Santua, 1979ko apirilaren 13a)
Orduetik ez da ezagutzen non dagoen.


1985 Azken meza ospatzen da (1985eko irailak 10)

1987 Baseliza desmuntatu eta eraitsi egiten da (1987ko uztailaren 3a)
Baimena baldintzatua ematen da: baseliza berreraiki beharko da.
Fatxadako harriak Papeleran gordetzen dira orduetik.

2016 Zikuñagako kapera eraikitzen da San Juan Bataiatzailea elizan.
Baselizaren berreraikuntzari berriro ekin eta bultzada ematen zaio.

2020 Gipuzkoako Foru Aldundiak interes publikotzat jotzen du berreraikuntza.
Hernaniko Udalak Zikuñagako baseliza berreraikitzea onartzen du.

2021 2021eko irailaren 8an, Hernaniko zaindariaren egunean, Zikuñagako Ama Birjinaren egunean, ZIKUÑAGAKO ERMITA berriaren inaugurazio jaiak ospatuko dira.



dare aldarrikatu izan du, eta Jaurlaritzako sail desberdinetako oniritzia jaso (ingurumena, ur agentzia, baita aireko hegazkinen gain-pasaera, etab.). Prozesu administratibo luze baten ondoren, berreraikitze proiektua onartu berri du Hernaniko Udal Gobernuak, alde aurretik Udalbatza Osoko alderdi guztiek aho batez oinarriko proiektua onetsi izan ondoren.

Prozesu administratibo luze hau gertatu bitartean, fenomeno sozial eta humano pozgarri eta eskergarria eman da. Garai batean, zaila bazen irudikatzea, gaur egun hainbat harreman eta lankidetzak bideragarri gertatu izan dira. Garai bateko egoera eta baldintza gatazkatsu eta konfliktibo haiekin hurbiltze eta elkar-kidetzak batera aldatzeko aukerak bideratu zaizkigu.

Jarrera abegikorra eta kolaboratzailea aurkitu izan dugu hasiera-hasieratik bai Papelera Guipuzcoana de Zikuñaga-ko zuzendaritzatik eta, noski, Zikuñagako auzoko bizilagunen partetik. Hauen aldetik sentiberatasun eta babes emozionala jasotzeko parada izan dugu. Eta, ozenki esan genezake, bere zailtasun, muga eta guzti, jakin izan dutela Zikuñagako auzoa bizirik eta tradizio erlijiosoari tinko mantentzen. Bere zaindariari dagozkion festa egunetan, irailaren 8. egunaren ondoko asteburuan ez-ezik, baita urtean zehar ere, adineko eta haurren artean berezia jarritz.

Donostiako Gotzaindegiaren partetik, proiektu honen hasieratik bertatik ulertu izan da, bertan jokatzen zena auzo historiko batez haratago, aurreko jenerazioen tradizioaren memoria eta oraingo jeneraziokoen iritzia zegoela jokoan. Puntu hau ikertu eta egoki azaldu bere masterrean hernaniar gazte batek. Laburki bada ere, hemen jasotzen dut bere tesiaren ondorio nagusietako bat.

Ermitari buruzko gure proiektua abiapuntu hartuta, hernaniar gazte unibertsitario batek Paisaia, Ondarea, Lurraldea eta Hiria kudeatzeko master-idazlana du egina. (1). Bertan herri honen ondarean biltzen diren alderdi historiko, kultural eta tradizio erlijiosoak analizatzen ditu gure proiektuan. Autore adi-tuen irizpideari jarraiki, Zikuñagako ermitaren berre-raikitze proiektuak alderdi horiek biltzen eta jasotzen dituela dio. Eta bi ondorio hauek ateratzen ditu:

- Ermitaren eraikuntza zegokiokeen paisaia propio eta berariazkoari men egin egiten diola, eta paisaia horretan zegoen hutsunea betetzen duela, horretarako bere garaian egindako akats nagusienetako bat zuzenduz: paisaia horretan parte hartzen duen biztanleriaren iritzia kontutan hartu ez izana, adin-tarte desberdinetako jendeari eginkorde galdeketa, ageri denez.

- Arestian aipatutako alderdi historiko, sozial, kultural eta erlijiosoak herri honen memoriarako jasotzen dituela, ermitak Zikuñagan betetzen zuten papera ahalik eta hoberen berreskuratuz.

Bukatzeke

Apalki, baina egiaz eta bihotzez, esana dut eta diot, “ermita berreraikitze proiektua burutzea bezain garrantzia izan duela proiektu integratzailea izateak”. Lehengo eta oraingo garaiak islatzen direlako eraikuntzaren egitura arkitektonikoan; eta gizarte eragile anitza bateratu duelako bere inguruan eremu sozial, politiko, kultural eta ekonomiko desberdinetatik.

Eta pozgarria da, alderdi historiko, kultural, sozial eta erlijioso anitzak bere baitan zeramatzan gatazka modu eraikitzaile eta erresolutibo batean bideratu izana, denon aldetik jarrera baikorra eman izan delako.

Eskerrak bihotz-bihotzez proiektu hau aurrera ateratzeko jaso dugun arnas eta lankidetzagatik.

Hernani, 2021eko irailaren 8 (Zikuñagako Amaren eguna).

Zikuñagako Andre Mariaren gorazarrea



*Antzinatek dator
herritar joera
Maria zaindari
tokiko egitea*

*Zortzi mendez gero
guganatu da:
Hernanik zaindari
badu Andre Mari*

*Noiz-nola agertu zen
ez jakin arren,
ez zikoinak bertan
pausatzen ziren*

*Horrela, guk dugu
orain omentzen,
eginez bertako:
Zikuñagako*

*Asabak bezala
gu babes eske
haur, gazte, adineko
hernaniarrentzat*

**Agur, agur, agur Maria
agur, agur, Ama gurea**

*Asabak bezala
gu babes eske
haur, gazte, adineko
hernaniarrentzat*

**Agur, agur, agur Maria
agur, agur, Ama gurea**

1.- Saenz de Urturi Erice, Marti, *El paisaje ausente: el caso de la desaparición de la ermita y la Virgen de Zikuñaga, en Hernani*. Gestión del Paisaje, Patrimonio, Territorio y Ciudad. EHU. 2018/19.